

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3056

EBAZPENA, 2015eko uztailaren 1ekoa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Euskal Kultur Ondareari buruzko Lege-aurreproiektua jendaurrean jartzeko dena.

Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 8.1 artikulua xedatzen duenez, «Herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorre entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurrean jarri beharko dira».

Aipaturiko lege-aurreproiektuaren xedea da Euskal Kultur Ondarearen araubide juridikoa ezartzea, beraren babesa, kontserbazioa eta balio-nabarmentzea bermatzeko, bai eta oraingo eta etorkizuneko belaunaldiak ondare hori ezagutu, hedatu eta goza dezatela erraztea ere.

Hori dela-eta, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluaekin bat etorritik, aipatutako lege-aurreproiektua jendaurrean jartzen da, eta, horretarako, hogei egun balioduneko epea nahikoa dela jotzen da; epe hori iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko da.

Azaldukoagatik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zituen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 6. e) eta 25. artikuluen arabera. Hori dela eta, hau

EBAZTEN DUT:

1.– Jendaurrean jartzea Euskal Kultur Ondareari buruzko Lege-aurreproiektua, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasi eta hogei egun baliodunetik.

2.– Bidezko interesa duten pertsona fisiko eta juridikoen, publiko zein pribatuen, Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren egoitzan (Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz; tel.: 945 01 94 70) eta Jaurkitzearen egoitza elektronikoko iragarki taulan –euskadi.net– kontsultatu ahal izango dute Euskal Kultur Ondareari buruzko Lege-aurreproiektuaren edukia, eta egokitze jotako alegazio, dokumentu eta egiaztagiriak aurkeztu ahal izango dituzte epe horretan.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 1a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.